# Xedapen Orokorrak

**EKONOMIA ETA OGASUN SAILA**
**OSASUN ETA KONTSUMO SAILA**

**6513**

352/2010 DEKRETUA, abenduaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2010. eko ekitaldiko aurrekontuko 92110 programan («Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak») diru-sarrerak lortu direla-eta, 4115 programan («Farmazia») 933.454,99 euroko kredituak gaitzen dituena.

Medikamenduaren Legeko bederatzigarren xedapen gehigarrian zehazten denez, farmazia-industriak Estatuko Osasun Sistemarentzako ekarpenak egitea aurreikusten da, salmenta-bolumenaren arabera egin ere. Xedapen horren 3. paragrafoan ezartzen denez, funts horietako % 50 sanitate-kohesiorako politika gartzeko erabiliko dira, eta bai fakultatibo medikoak prestatzeko programak garatzeko, eta –botikak arduratsu eta zentzuz erabil daitezen– populazioaren osasun hezkuntza programak gauzatzeko ere, betiere Osasun eta Gizarte Politika Ministerioak zehaztu banaketarekin, aldez aurretik delarik Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluak egindako txostena.

Osasun eta Gizarte Politika Ministerioak 2010. urteari doakion sarrera egin du, 933.454,99 euro, eta Osasun eta Kontsumo Sailak hori habilitatzeko eskatzen du, zertarako-eta gaixo polimedikatuen bizikalitatea hobetzeko eta bai, botikak zentzuz erabil daitezen, medikuek eta farmazeutikoak prestatzeko programak gauzatzeko ere, betiere bat etorriaz irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoarekin. Dekretu horren bitartez, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko legezko xedapenen testu bategina onartu zen.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Osasun eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko abenduaren 28ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2010eko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA**
**DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO**

**6513**

DECRETO 352/2010, de 28 de diciembre, por el que se habilitan créditos en el Programa 4115 «Farmacia» por ingresos obtenidos en el Programa 92110 «Relaciones Financieras con Sector Público Español», del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, por importe de 933.454,99 euros.

La Disposición adicional novena de la Ley del Medicamento prevé que la industria farmacéutica realice aportaciones al Sistema Nacional de Salud en función de su volumen de ventas. El apartado 3 de esta Disposición establece que un 50% de dichos fondos se destinen al desarrollo de política de cohesión sanitaria, al desarrollo de programas de formación para facultativos médicos así como a programas de educación sanitaria de la población para favorecer el uso racional o responsable de medicamentos, según la distribución que determine el Ministerio de Sanidad y Política Social previo informe del Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud.

Realizado el ingreso correspondiente al año 2010, por parte del Ministerio de Sanidad y Política Social, por un importe de 933.454,99 euros, el Departamento de Sanidad y Consumo solicita su habilitación, de conformidad con lo establecido en los artículos 82 y 83 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de setiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, para destinarlo a la financiación de programas para la mejora de calidad de los enfermos polimedicados y al desarrollo de programas de formación en uso racional del medicamento para médicos y farmacéuticos.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Sanidad y Consumo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de diciembre de 2010,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Aprobar en el Presupuesto de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010 una habilitación de créditos en el siguiente estado de gastos:

| Programa | Azpikontzeptua | Euroak |
|---|---|---|
| 4115 | 413.00 | 435.701,34 |
| 4115 | 415.00 | 497.753,65 |

Diru-sarreren egoera-orri honetan beste hainbesteko diru-sarrerak lortzetik sortzen dira kredituok:

| Programa | Azpikontzeptua | Euroak |
|---|---|---|
| 92110 | 431.00 | 933.454,99 |

Funts horien bitartez honakoak finantzatuko dira: batetik, gaixo polimedikatuen bizi-kalitatearen hobekuntza, eta, bestetik, –botikak zentzuz erabil daitezen– medikuek eta farmazeutikoak prestatzeko programak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 28an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

| Programa | Subconcepto | Euros |
|---|---|---|
| 4115 | 413.00 | 435.701,34 |
| 4115 | 415.00 | 497.753,65 |

Estos créditos se generan por la obtención de ingresos por el mismo importe en el siguiente estado de ingresos:

| Programa | Subconcepto | Euros |
|---|---|---|
| 92110 | 431.00 | 933.454,99 |

Los fondos se destinarán a financiar la mejora de calidad de los enfermos polimedicados y al desarrollo de programas de formación en uso racional del medicamento para médicos y farmacéuticos.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

El Consejero de Sanidad y Consumo,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.